



**KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEAREN ERABAKIA,  
XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX JAUNAK ETA BESTE HAMABOST PERTSONAK  
BIZKAIKO PADEL FEDERAZIOAREN HAUTESKUNDEETARAKO DEIALDIA  
ONARTZEN DUEN 2017KO URTARRILAREN 31KO EBAZPENAREN  
AURKA ETA HAUTESKUNDE PROZESU HORRETAKO OTSAILAREN 9KO  
ANTOLAKETA-EGINBIDEAREN AURKA AURKEZTUTAKO  
ERREKURTSOEI BURUZKOA.**

---

**Esp.: 24/2017**

**AURREKARIAK**

**LEHENA.-** XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX jaunak, bere izenean eta 10 klubengatik, 3 kirolariren, teknikari baten eta epaile baten ordezkari gisa, errekurtsio bana aurkeztu du Batzorde honen aurrean, goiburua hitz-hitzez erreproduzitu ditugun honako egintza hauen aurka:

- a) 2017ko otsailaren 6an: «Bizkaiko Padel Federazioaren 2017ko urtarrilaren 31ko Ebazpenaren aurkako errekurtsioa federazio horretako hauteskunde-organismoak emandako ustezko ezestearen kontrako errekurtsioa jartzeko idazkia».
- b) 2017ko otsailaren 27an: «Bizkaiko Padel Federazioaren hauteskunde-organismoak eta kontu-hartzaileak 2017ko otsailaren 9an egindako «antolaketa-eginbidea»ren aurkako errekurtsioaren ustezko ezespeneri dagokionez dokumentazio gehiago emateko eta horren kontrako errekurtsioa jartzeko idazkia».



**BIGARRENA.-** Kirol Justiziako Euskal Batzordeko (KJEB, aurrerantzean) idazkariak Bizkaiko Padel Federazioari (BPF, aurrerantzean) helarazi dio errekurtsoa; espedientea eta, hala badagokio, alegazioen idazkia bidaltzeko ere eskatu dio, egoki iritzitako froga-eginbideez gain.

**HIRUGARRENA.-** BPFko kontu-hartzaileak eskatutakoa helarazi du erregistroan martxoaren 16an sartu den idazkiaren bitartez eta, laburbilduz, honako hau eskatu du: a) aurkeztu diren errekurtsok ez onartzea; eta, b) kontu-hartzailea –iradokitako ordezkariak-akatsak zuzendutakoan– baimendu dezatela errekurtsogileek otsailaren 1ean aurkeztutako errekurtsoa ebazteko.

## ZUZENBIDE-OINARRIAK

**LEHENENGOA.-** KJEB honek badu errekurtsu hau aztertzeko eskumena, hala baitiote 14/1998 Legearen 138.b) artikulua eta 310/2005 Dekretuaren 3.b) artikulua.

**BIGARRENA.-** Bi jarduera errekurritu dira, aurretik esan bezala.

Lehenengoa, 2017ko urtarrilaren 31ko erabakia, zeinaren bidez hauteskundeetarako deialdia egiten baita. Deialdi horri honako eranskin hauek erantsi zaizkio dokumentazio eta informazio modura: -I, behin-behineko hauteskunde-errola; -II, Batzarreko kide kopuruaren banaketa; eta, -III, hauteskunde-egutegia.

Errekurtsogileek nahi dute Batzorde honek baliogabetu dezala aurkaratutako ebazpena, beren ustez «hauteskunde-prozesuari Kirol Justiziako Euskal Batzordeak uztailaren 14an lehen erabakia hartu zuen unetik berrekin behar baitzaio, eta itzuli behar da, horrenbestez, KJEBren arabera hauteskunde-



araudia bete gabe baliogabetu ziren estamentuetako hautagaien behin betiko izendatzeko izapidera. Hori horrela, apirilaren 19an baliozki onartutako behin betiko errodari eta kirolarien estamentuetan baliozki egindako hauteskundeei eutsi behar zaie; halaber, bere garaian horretarako ezarritako epea amaitu ondoren hautagai berriak aurkeztea galarazi beharra dago».

Bigarren erabakiari dagokionez –otsailaren 9ko antolaketa-eginbidea, akreditaziorik eza zuzentzeko eskatzen duena–, hori baliogabetzeko eta ordezkartzaren egiaztagiria espedientera gehitzeko eskatu dute errekurtsogileek.

BPFko kontu-hartzaileak, bere aldetik, Batzorde honi eskatu dio ez ditzala izapidetzera onartu bi errekurtsor horiek; lehenengoa, «ez delako ematen administrazioaren isiltasun negatiborik edo ustezko ezespenik», eta bigarrena, berriz, errekurtsogileak zuzendu izan dituelako hautemanarazitako akatsak; hori dela eta, urtarrilaren 31rako hauteskunde-deialdiaren erabakiaren kontrako errekurtsoa ebazteko baimena eman diezaiola ere eskatu dio Batzorde honi.

**HIRUGARRENA.-** Kontuan hartzen bada kontu-hartzaileak onartu duela errekurtsogileak prozedurara aurkeztutako ordezkartzaren egiaztapena, errekurtsoren xedea aurkaratu den lehen jarduerara mugatuko da.

Hau orain, gaiaren mamia aztertzeraz jarri baino lehen beste gauza bat komeni da argitzea, errekurtsoa ez onartzeko arrazoirik dagoen, alegia.

Kontu-hartzailearen iritziz, Batzorde honek uko egin behar dio aurkezturiko errekurtsoa ebazteari, ez delako amaitu hauteskunde-egutegian adierazitako epea. Hori arrazoitzeko, zera dio: «(...) aurkeztutako inpugnazio eta errekurtsoak ebazteko epea otsailaren 6tik 9ra da, halaxe ezartzen baitu hauteskunde-araudiak 4.2 artikuluan (...). xxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxxx jaunari



bere esanetan duen ordezkartzari buruz jarritako errekurtsua zuzentzeko eskaera egiten dio organo honek otsailaren 9an helarazitako diligentzia baten bidez, eta halaxe jasota dago ekarri den espedientean.

Esandakoa esanda, ebazteko ezarritako epeen barruan gaude, eta hauteskunde-egutegia betetzen ari da, frogatuta geratu denez. Dena dela, ohorez zuzentzen natzaion organoak **XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX** jaunak aurkeztu duen errekurtsua ezesteko zain gaude; izan ere, ez dago, bere idazkian alegatzen duen moduan, administrazioaren isiltasun negatiborik edo ustezko ezespenik, Hauteskunde Batzordearen eta Bizkaiko Padel Federazioaren kontu-hartzailearen aurrean 2017ko otsailaren 1ean aurkeztutako errekurtsua ebazteari ekiteko (...)».

Batzorde hau bat dator arrazoibide horrekin; Batzorde honen aurrean otsailaren 6an aurkeztutako errekurtsua hauteskunde-egutegian lehen auzialdian ebazteko ezarritako epea amaitu baino lehen jarri da eta.

Egitez, kontu-hartzaileak otsailaren 9ko gaueko hamabiak arteko epea zuen aurkeztutako erreklamazioa ebazteko, eta beraz, Batzorde honen aurrean errekurtsua aurretiaz jarri da. Bi konponbide daude horren aurrean; bata, denbora igarotze hutsagatik zuzendutzat hartzea, hau da, berariazko ebazpenik egon ez denez, balioztatutzat jotzea gaur egun. Bestea, berriz, kontu-hartzaileak berariazko ebazpena emateko egindako eskaera onartzea; hala, oraingo errekurtsogileek aukera izango lukete beste errekurtsu bat aurkezteko, hala balegokio, egindako eskaerei erantzun ezean.

Hori horrela, irtenbide hori da, Batzordearen iritziz, azaldutako kasuan egokiena: errekurtsua ez onartzea, baldin eta kontu-hartzaileak ebazten badu errekurtsogileek 2017ko otsailaren 1ean aurkeztutako errekurtsua.

Aurreko hori guztia aintzat hartuta, KJEBak honako hau



## ERABAKITZEN DU

Errekurtsoa ez onartzea, hirugarren zuzenbide-oinarriko azken paragrafoan azaldutako baldintzen arabera.

Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, interesdunek aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dezakete Kirol Justiziako Euskal Batzordean, hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, edo administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete Bilboko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, betiere Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean ezarritakoarekin bat etorritz.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko apirilaren 11

**JOSÉ LUIS AGUIRRE ARRATIBEL**

Kirol Justiziako Euskal Batzordeko presidentea